

KADETTA ALA LERA...?

Jesús M.^a MENDIZABAL
1989. urteko "ZAPIRAIN ANAIAK
I. BERTSO PAPER LEHIAKETAREN"
1. Saria.

1.- Bertso kantuak para ditzadan
dolu joanak dakarren patxadan.
Gorriak pasa ditugu baina
minak ez dirau ehun urte haina.
Bertsoak, beraz,
umore barez doaz euskeraz,
Bilintx zenaren doinu tankeraz.

2.- Gure etxeak etxean baino
kotxean gehiago gabiltz gaurdaino.
Ihaz zen noski, nire emazteak
esan-ta-esan, a ze asteak:
"Hartzu arreta:
erre bostakin txarki gaude eta
eros ezazu Opel Kadetta."

3.- Eta Kadetta G-T gainera,
bi miloi peza haren ordainera!
Izan arren lau kontu korrente
denak urritxo nik derrepente;
zakurren putzak!
gure zakuen hondarren hutsak
loritzenago Aurrezki Kutxak.

4.- Harro genbiltzan auto dotorez:
ehun-zaldi-ta-gehio bazen motorez;
baina pobreon garaje ezean
kale gorrian utziz luzean
aurreko batez
(bidaia nahi ba igande partez)
behartu eta Kadettik bat'ez!

5.- Deitu nituen Udaltzain eta
Ertzain eta beste "zaingo" puineta...
Jira-ta-buelta zenbat izerdi!,
jo bageneki nora, gaitzerdi...
Jun-da-harrapa-zak...
Beti bagabiltz horren kapazak
haziko dira berriro azak!

6.- Etxean, berriz, airatu zainak,
ez-gose-ez-egarri tristetako mainak.
Alaba biak "Aita —galdezka—,
auto berri bat noiz litteke eska?"
Aita eta ama
zuritu nahian barrengo drama...
Luzarorako, ze panorama!?

7.- Ustekabea Udala hoska:
"Agertu omen da; lapurrek ospa.
Errenderian daukate orain,
zu noiz joango hantxe daude zain..."
Alajainkoa!
hura jo nuen salto brinkoa,
eskerrak zenik zolu trinkoa...

8.- Esan bezala Errenderian
zeukaten Kadetta hauts mixerian:
ate-eta-arranke-eta-aurre-faroa
jo-ta-hautsiaren desanparoa!
Astakirtenak!
zorri artetik alper irtenak,
lotsaren berri ez dakitenak...



9.- Biharamunez garajera jo
kosta-ahalak-kosta noski, ze karajo...!
Konpontzen hiru egun luze eta
ia larogei mila pezeta...
Arranopola!
oraindik sutan daukat odola:
ordainik ezin bildu inola!

10.- Tximajario bazter nahasle,
oin biko azeri beti irabazle,
arikaixtoko prakextu anker,
anima aparte kaleko aker,
ohiturei eutsi!
ez dizuet zor eskerrik gutxi:
apenas ezer duzuen hautsi.

11.- Halabaina, gaur garajerako
sosez muskildua nagoelako
kotxea salbo utzienean
zerbait behar-ta gutxienean
badut alarma,
soinu-eta-argiz nolako xarma,
lapur merkeentzat baleko arma.

12.- Kutxa-ta-lapur, dena kolpetik...
askorik ez zait argitzen kopetik!
nire soldata Kadettarentzat
berriz ebasten badute behintzat.
Hau da abelera...!
haunditzenago bazait galera
mandoa eta mendiko lera!!



Doinua: Juana Bixenta Olabe